

# Euskal pluraltasuna, askatasun aukera

por **D. Joseba Arregi**

*Conferencia pronunciada  
el 12 de noviembre de 2002*

Forum Deusto



## Aunitzasuna askatasunaren baldintza

Joseba Arregi\*

Jendaurrean hitzegiteko gonbita jasotzen denean, beharrezkoa izaten da burutu beharreko hitzalditxoak gonbita luzatu dutenei eskerrak emanaz hastea. Horrela egin nahi nuke neuk ere Forum Deusto-ko arduradunei, batikbat bere lehendakaria den Javier Elzo jaun eta adiskideari, egin didaten gonbidapenagatik nire eskerrik beroenak luzatuz. Eskertzekoa da bai jendaurrean hitzegiteko aukera izatea, baina aukera honek baditu bere arriskuak. Edo arriskuak baino gehiago erantzukizunak: norberak bere baitan pentsatzen duena jendaurrerako artikulatu beharra, argudioetan jantzi beharra, zehaztu beharra, nor bere buruari kontuak eskatuz. Beharrezkoa baita garaiak eta egoera zaildu zaizkigunean, edo zaildu ditugunean hobeki esateko, esaten denaren erantzukizuna nor bere gain hartzea, ez baigaude jolaserako eta txantxetan ibiltzeko, ezta hitzekin ere, edo batez ere ez hitzekin. Jendaurrean hitzegiteko aukera hainbat diskurtso publikoetan ohikoa bihurtu den hitzen eta proposamenen dantzaldian parte hartzeko arriskua ere badela ukaezina baita.

---

\* JOSEBA ARREGI estudió Humanidades y Filosofía en el Seminario Diocesano de San Sebastián. Es Doctor en Teología por la Universidad de Münster (Alemania 1976) y Doctor en Sociología por la Universidad de Deusto (Bilbao, 1999). De su Curriculum profesional cabe destacar: Profesor de Religión e Historia de las Ideas (Escuela Universitaria Diocesana de Formación del Profesorado, San Sebastián), puesta en marcha y Dirección del Centro de Enseñanzas Medias Iraurgi (Azpeitia), Secretario de Política Lingüística (Gobierno Vasco, 1983), Consejero de Cultura y Portavoz Gobierno Vasco (1984-1985 y 1987-1995), Presidente del Gipuzko Buru Batzar (1985), Parlamentario Vasco 1986-90, 1990-94, 1994,98, 1998... Arregi es colaborador en *El Correo Español*, en el *Diario Vasco*, en *El Periódico de Cataluña*, y ha publicado *Euskadi invertibrada*, *Euskadi como pasión*, *La nación vasca posible*, entre otros.

Pluraltasuna edo aunitztasuna da eskeini zaidan gaia, euskal gizarteari begira eta euskal gizartera zehaztuz. Eta pluraltasunaren gaia askatasunarekin lotzea izan da nire aukera. Hasterako, ordea, aspalditxoan daukadan susmo bat plazaratu beharrean nago: euskal gizartean, edo hobeto esanda, euskal politikan hainbat hitz eta konzepto lehentxoago edo beranduxeago onartuak dira, baina bernetik hustu ondoren eta berez izan dezaketen esanahi guzia baztertu ondoren. Badirudi euskal politikak edozer iresteko gaitasuna duela, irestearekin batera iresten duen hori guziz ezabatuz, barnehustuz.

Horixe gertatu da pluraltasun hitzarekin. Euskal gizarteko eztabaida politikoan parte hartzen duen orok, une jakin batean, onartzen du aunitztasun, pluraltasun hitza. Baina une hortan bertan hitz hori esanahirik gabe gelditzen da, barnehusturik. Muina galtzen du. Oinarrizko arazoei buruz guziz kontrajarriak diren jarrerak dituzten jendeek pluraltasuna onartzen badute, ezin hitz horrek esanahi garbirik eduki.

Plazaratu dudan susmo honekin batera doa bigarren bat: euskal politikak bizi duen arazo larrietako bat, hain zuzen, hitzen, konzeptoen leherketa da. Edozein modutara, edozertarako, edozer zilegiztatzeko, edonolako helbururen zerbitzutan jartzeko hitzak eta konzeptoak nolahi erabiliz, elkar ulertzeko bitartekoak izan behar lutekenak deuseztu egin ditugu, elkarrizketarako bitartekorik gabe gelditu gara. Hitzak eta konzeptoak desitxuraketaraino behartzen badira, hitzek eta konzeptoek merezi duten errespetoa alde batetara utzirik modu instrumental hutsean, tresna besterik ez bailiran, erabiltzen badira erabiltzen dituenaren borondate ustez ahalguztidunaren zerbitzutan, elkarrizketa bera da azkenean guziz ezindua suertatzen dena, osoki eragotzia, porrotera hasieratik kondenatua.

Norbaiti bururatuko zaio, edo bururatu beharko litzaioke, gutxieneko esanahiren batean onartutako hitzen eta konzeptoen, eta elkarbizitza ahalbideratzen duten amankomunean eraiki eta onartutako erakunde batzuren artean dagoen parekotasuna: aurrenekoen ausentziak bigarrenengoan barneindar falta adierazten du. Horregatik azaltzen dira gurean behin eta berriz irtenbide gisa edonolako muini uko eginik, formara murrizturik dauden elkarrizketa moduak eta aurrerabideak: edukinak baztertuz axalean, forma hutsean, helbururik gabeko bidean ados jar gintezkeelaren uste hutsala. Hitzegitea, elkarrizketa mugak jarritz bakarrik da ahalezko. Ezerezean ez dago adostasunik. Ezereza dena ez dago zabaltzerik, haundiago egiterik.

Nire gaurko ihardunak inolako zentzurik badu aipatutako joera horren kontra egitea da. Inoiz adierazi izan dut gure arteko diskurtso poli-

tikoetan ardatz gisa erabili ohi den hainbat konzeptoren eta konzepto hoiekin adierazi nahi denaren deseraiki beharra. Konbenzimendu horretan jarraitzen dut gaur egun oraindik ere. Nazioa eta nazionalismo konzeptoek beharrezkoa dute nire iritzian horrelako deseraiketa bat. Beste bigarren konbenzimendu batetara ere heldua naiz, ordea, urteetan aurrera noalarik: zenbait hitz eta termino nozitzen duten inflazioetik eta barnehustuketatik libratu beharra. Azken batean elkarrizketarik, gutxiengo adostasunik, elkarulertzerik nahi badugu, diskurtso politikorako beharrezkoak diren elementoak, hitzak, konzeptoak eta berauen esanahia berreraiki beharrean aurkitzen gara.

Gaixotasunen batek jota baldin badago euskal politika, eta nik baietz uste dut, gaixotasun honek izen bat du: tresnakeria, instrumentalizazioa. Ezeren aurrean —dela hitz, ohitura, erakunde, akordio, egitura— errespetorik eza, bere edukina norberaren zerbitzutan modu guziz arbitrarioan erabili ahal izatearen ustea, guzia manipulatzeko jarrera, edozertan esku sartzeko jarrera. Borondate subjektibo bete, bakar eta absoluto baten ondorioa da tresnakeria deitu dudan jarrera hori, eta ez guke ahaztu behar ETA-k horrela, sujeto horren gisan, definitzen duela bere burua. Erahildakoak kontutan izanik, horra hor biolentziaren beste bigarren ondorio izugarria, zeinetaz jabetzeko hain asmo gutzi azaltzen dugun.

Nire gaurko ihardunak, esan bezala, ez du besterik izan nahi: gure gaurko gizartean eta eztabaida politikoa funtzio nagusia betetzen duten bi hitzen, bi konzeptoen berreraiketarako ahalegin xume bat aurkeztea, bai eta bi konzepto hoien arteko harremanarena, harreman horretan guziz garbi azaltzen baita bi hitz hoiek berreraikitzearen funtsa eta nondik norakoa.

Gaur ez dago euskal gizartean pluraltasun hitza ahotan hartuko ez duen politikorik. Ez da onargarria pluraltasunaren kontrako jarrera azaltzea. Ez publikoki behintzat. Ez dugu aurkituko politikorik euskal gizartearen pluraltasuna errespetatzeko prestutasuna erakutsiko ez duenik. Hori horrela dela aitortzeak ez garamatza, ordea, inora, guziok dakigun bezala. Adibide baten eskutik argitzen saiatuko naiz: dela zenbait urte, askotxo iada, ETB-ko eztabaida batean, hizkuntz politikari buruzko eztabaida batean, orduko HB-ko mahai nazionaleko kide batek honako hau esan zuen: gu prest gaude euskal gizartea elebiduna dela onartzeko. Guk ez dugu elebakartasuna aldarrikatzen. Horrekin zer esan nahi zuen galdetu zitzaionean, honela erantzun zuen: bai, guk onartzen dugu euskal gizarteak elebiduna izan behar duela, Danimarka elebiduna den bezala, bere berezko daniera hizkuntzarekin, eta ingele-

sa bigaren hizkuntza bezala izanik. Berdin Euskadin —garai hartan oraindik existitzen baizen, baita HB-koentzat ere, Euskadi—: euskara berezko hizkuntza eta gaztelania bigarren hizkuntza gisa.

Diskurtso politiko guzitan pluraltasuna onarturik azaltzeak pluraltasunaren balioa baino gehiago adierazten du bere esanahi hutstasuna, bere esanahi gabezia. Ez da posible pluraltasunak ezker-eskuin, aberzale radikal zein kontrakoentzat balio berdina izatea, ondorio berdinetan gauzatzea, esanahi berdinez orniturik egotea, beste zenbait erabaki politikoren guziok onartutako oinarri amankomun izatea. Eta ez da, eguneroko bizitzan zoritxarrez ikusi ahal dezakegunez. Pluraltasuna onartzen dutela dioten hainbat diskurtso politikotan pluraltasuna ukatzen duten jarrerak eta printzipioak, iritziak, berandu baino lehen azl-tzen dira planteatzen denaren ondorioetan. Ez baita nahikoa, nahiz eta kontrakoaren adibideak gehiegi izan, hitzak, konzpetoak diskurtsoan eta planteamenduan elkarren ondoan jartzea guziak ondo elkarturik daudela pentsatu ahal izateko, elkar baldintzaturik eta elkar mugaturik. Ez da nahikoa pluraltasun hitza diskurtsoaren uneren batean nolabait aipatzea diskurtsoan esaten dena pluraltasunaren balioaz kutsaturik egon dadin, pluraltasunaren ikuspegitik pentsatua egon dadin, diskurtso horren ardatza pluraltasunaren balioak osa dezan.

Guzioi ohikoa zaigu paperak edozer jasaten duela dioen esaldia. Antzeko zerbait gertatzen da diskurtsoekin ere: gauza bat eta bere kontrakoa aitortu, seriotan hartuz gero elkartu ezineko konzeptoak eta eskakizunak planteatu, printzipio gisa zerbait aitortu eta ondorioetan ukatu, benetako borondate zuzena duenarentzat ezer ezinezko ez balitz bezala, kontraesan guziak gainditzea posible balitz bezala. ETA-k benetako askatasuna, benetako demokrazia, euskal herriaren benetako identitatea eta historia, eta une berean guzi hori bera den subjektibitatean sorturik, bildurik eta agorturik dagoela dioen printzipioaren ondorioa, itzala eta eragina da hori gure eguneroko diskurtsoetan.

Lehen tresnakeria hitzaz adierazi nahi izan dudana gaixotasuna bera azaltzen da ez bakarrik hitzen mailan, baita diskurtsoak osatzeko moduan, hitzekiko eta hauek elkarrekin lotu ahal izateko gogoan izan beharreko arauetikiko errespeto faltan. Eta ez hitzei maila metafisikoan errealitatearen bat atxeki dakiekkelako, pluraltasunarekin berarekin zeri-kusi zuzena duen beste arrazoi askoz garrantzi haundiagoko batengatik baizik: antropologo batek dioen bezala, eta kultura modernoan ohi-koegia bihurtu den «pentsatzen dut, beraz banaiz» esaldiaren eredura pentsatutako individualismoaren kontra, beste honako hau zuzenagoa litzatekelako baizik, «komunikatzen dut, beraz banaiz». Harremanak

osatzen du sujetoa, harremanean iristen da izatera sujetoa, ez bere baitan bere baitatik eta bere baitarako. Harremana ez da bere baitan den norbaitek bigarren une batean hartutako erabakiaren ondorio, denbora mailan eta logika mailan lehena eta oinarria baizik. Aipaturiko errespeto falta —hitzekiko eta diskurtsoen barne arauetikiko errespeto falta—, beraz, besteen komunikazioan partehartzeko eskubidearekiko errespeto falta da.

Indibidualismoa bakarhizketa da, harremanaren lehentasuna azpimarratzea elkarrizketa. Gurean aldiz ezinezkoa den zerbait lortu dugu: elkarrizketa beste gairik ez duen bakarhizketa nagusitzea!

Komunikazioak harremana eskatzen duen bezala diferentzia aitortzen du eta presupostu gisa beharrezkoa du. Ez dago pluraltasunik diferentziarik gabe. Biek, pluraltasunak eta komunikazioak, diferentzia dute aurrebaldintza. Bainan ez komunikazioa ezinezkoa egiten duen diferentzia, ez diferentzia haustura gisa ulerturik, ez diferentzia absolutizaturik, zatiketa bailitzan. Diferentzia zatiketa moduan ulertzeak bakarhizketa du ondorio. Diferentziaren balioa erradikaltzeak komunikazioa ezinezko egiten du.

Pluraltasunaren balioa eta esanahia behar bezala ulertu ahal izateko bide egokia izan daiteke azken garaietan multikulturalismoaren eta inmigrazioaren inguruan eman den eztabaidaren nondik norakoa gogora ekartzea. Zenbaitentzat multikulturalismoa berez da gorde, zaindu eta errespetatu beharreko balio bat. Zenbaitentzat, era berean, inmigranteen berezko eskubidea da dakarten kulturarekin jarraitu ahal izatea. Bai bata zein bestea defendatzen dutenentzat, berriz, komunitarismoa eta identitatearen politika eskutik doaz, eta kontrako plante-mendu guzien aurka bultzatu behar dira: gizabanakoak bere identitatea eta bere nortasuna, benetan, elkarrekin, komunitateak eskeintzen dizikion balioetan bakarrik osatu dezakeelako. Identitateak eta nortasunak, norbanakoaren balioak, komunitatea eskatzen du: baliokidetzak osoko bat sortzen da horrela norbanakoaren eta komunitatearen, elkarrekin artean. Eta baliokidetzak hori bete eta osoa den heinean, eta komunitarismoaren eta identitate politikaren modu erradikalean horrela da, barrukaldean komunikazioa bete, integrazioa osoa dena kanpokaldera zatiketa, diferentzia erradikal bihurtzen da, zeinek komunitateen arteko elkarrizketa, azken batean, einezkoa egiten duen.

Norbaitek pentsa dezake komunitarismoaren eta identitate politikoen irudi desitxuratu bat marrazten ari naizela. Dударik gabe laburpen orok, eta nireak areago, desitxuraketaren arriskua bere baitan du. Eta hitz gutxi eta zuzenak erabiltzen direnean, nik egin dudana bezala, erra-

za da marraztutako irudia erradikalegia dela esatea. Eguneroko bizitzan erabiltzen ditugun esaldiak aztertzen baditugu, ordea, nahiko erraz jabetuko ginateke esandakoaren egiaz eta zuzentasunaz. Nor gara gu islama juzgatzeko? Nor gara gu europear eta kristau tradiziokoak ez direnei nola bizi behar duten esateko? Nor gara gu gure demokrazia modua beste kulturakoentzat ere egokia dela esateko? Nor gara gu gure zibilizazioaren balioak guzientat baliozkoak izan behar dutela esateko? Kultura bakoitzak baditu bere balioak. Eta etxe aldera hurbildurik: hemendik konpora ez gaituzte ulertzen, ezinezkoa da hemen gertatzen dena hemendik kanpora behar bezala ikustea, bertan bizi ez baldin bazara ezin dezakezu ganorako juzgurik egin, azken batean guk geuk bakarrik ulertu dezakegu benetan gertatzen dena, utz gaitzatela baketan!

Giovani Sartori-k bere liburu polemikoan multikulturalismoa arbuaitzen duenean, pluralismoa defendatu ahal izateko hain zuzen, horixe da ukatzen duena: diferentzia erradikal gisa eraikitako elkarteetan, komunitateen, kulturen elkar ulertu ezina, komunikazioaren ukazioa, kolektibo, komunitate, elkarte bihurturiko indibidualismoa, eta honek dakarren bakarhizketa ukatu nahi dituelako, baina ez unibertsaltasun bateratzaile, itxura bakarreko baten izenean, pluraltasunaren izenean baizik. Multikulturalismoarentzat, bere itxura erradikalean hartuz gero, pluraltasuna elkarrekin komunika ez daitezken komunitateen, identitate kolektiboen, elkarteetan elkarrenondoan jartzeak osatzen du —gogorra lehen diskurtsoei buruz esandakoa—, eta estatuari, identitateen politikaren izenean, komunikaziorik gabeko elakrrenondoan egote horren kudeaketa, gestioa eskatzen diote.

Sartorik, ordea, uste du, pluraltasunaren ulermen horrek pluraltasuna bera, eta mendebaleko demokraziaren tradizioan osatzen joan den eskubidezko estatua bera, ezinezko bihurtzen dituela. Bere iritzian ez dago pluraltasunik diferentzia komunikazioarekin lotzen ez bada. Eta komunikazioa esaten denean, diferentzien arteko komunikazioa da esan nahi dena, ez diferentzia bakoitzaren barruan eman daitekena —azken honek komunikazio izena merezi ote duenaren inguruan zailtza oso serioak ere baditutu!—. Pluraltasuna, Sartori-ren iritzian, diferentzien arteko komunikazioan bakarrik sortzen baldin bada, ezinbesteko da diferentziak elkarrekin lotuko dituen batasun bat, komunikazioa einezkoa den bezala amankomuneko araurik ez baldin badago —bal-dintzarik eta mugarik gabeko elkarrizketa ezinezkoa den bezalaxe—.

Pluraltasunak, beraz, biak eskatzen ditu: diferentzien errespetoa eta diferentziak komunikazioan elkartzen dituen batasuna. Multikulturalis-

moak, aldiz, batasuna ukatzen du, ezinezko egiten, diferentziak komunikaziorako ezgai egiten dituen neurri berean. Pluraltasunarekin loturik aipatzen den batasuna, ordea, ez da nolanhiko batasuna, ez da zehaztu gabe utzi daiteken batasun konzepto bat. Modu oso ximple batean jarrita: zenbat eta sakonagoa izan diferentzien maila, orduan eta edukin material gutxiagokoa izan beharko du batasunak, hau da, formalagoa izan beharko du. Pluraltasunak eskatzen eta beharrezkoa egiten duen batasun konzeptoa ez da, beraz inola ere balio jakin eta material baten unibertsal bihurtzea, ez da batasun material bat, ez da kultura bat guzientzat baliozko deklaratzeko, ez da identitate bat guzientzat arauzko bihurtzea.

Pluraltasunak beharrezkoa egiten duen batasuna identitate jakin bat guzientzat arauzko bihurtzea ez baina identitate diferenteak elkarrekin bizitzea ahalbideratzen duen erakundetzea da. Pluraltasunarekin batera doan batasuna ahalbideratzen duena identitate bereizi bakoitzaren partikular bihurtzea da, identitate partikular bakoitzak guzientzat baliozkoa izateko pretensioari uko egitea, eta uko egite horren bitartez eremu publiko bat ahalbideratzea, zeinetan identitate diferenteen arteko komunikazioa gertatzen den. Identitate diferenteen arteko elkarrizketa hori interes ezberdinen negoziazioa da, eta demokrazia eta eskubidezko estatura negoziatio horren erakundetzea dira.

Eskubidezko estatuak eta demokraziak, beraz, pluraltasunaren eskakizun berdinak ditu: diferentzien errespetoa, eta diferentzien arteko komunikazioa ahalbideratzea. Ahalbideratze hori erakundetu egiten dute eskubidezko estatuak eta demokraziak. Eskubidezko estatuaren eta demokraziaren identitate konzeptoa, diferentziak eta batasuna pluraltasunean elkartuz, diferentziak bizitzeko, eta bizi ere komunikazioan, negoziazioan, bizitzeko beharrezkoak diren erakundeekin identifikatzea esan nahi du, hau da, identifikazioaren muina identitateen pluraltasuna bera da. Horregatik esaten du Sartori-k, eta ene iritzian arrazoiz, diferentzien komunikazioaren erakundetze hori onartu ezin dezaketen kulturak, hau da oinarrizko lautasun bat onartzen ez duten kulturak, identitate mota bat guzientzat arauzko egiten duten kulturak ezin direla mendebaleko demokrazietan garatu den eskubidezko estatuan integratu, pluraltasunaren kontrakoak direla.

Kontrako jarrerak daudenik ez dut ukatuko. Ohikoena aipatu nahi nuke: mendebaleko gizarte demokratiko gehienetan —EEBB kasu berezi gisa alde batera utzirik— pluralismoa osatzen duten diferentziak erlijioari dagozkion diferentziak izan daitezke, klase arteko diferentziak, bestelako interes ekonomikoetan oinarritutako diferentziak, oso gutxi-

tan hizkuntzei dagozkien diferentziak, eta inola ere ez nazio berekoak, elkarte berdineko partaide izateari dagozkion diferentziak. Frantziarrak ezkerreko zein eskuineko izan daitezke, esan ohi da, sozialista edo lepenista, kristau edo sinesgabe, bainan denak dira frantziar, nazio bereko partaide, elkartzen dituen sentimendu berdin baten jabe. Eta amankomuneko sentimendu hori gabe, oinarrizko identitate sakon berdin hori gabe ez dago pluraltasunik. Euskal gizarteari dagokionez, berriaz, oinarrizko amankomuneko sentimendu horren baitan eraiki nahi dira diferentziak, edo eremu horretan ematen diren diferentziak dira erakundetu nahi direnak. Eta hori ez da posible, esaten da.

Oso modu laburrean emango diot erantzuna kontrako argudio honi.

Frantzia-n bertan gaur egun gurean bezalaxe dago eztabaida berdina planteaturik. Ez bakarrik ezari ezarian eta zailtasun haundiekin Frantzia-n oraindik hizkuntza erregionalak, beraiek deitzen dituzten bezala, bizirik dirautelako. Hizkuntza hauetaz beste frantzesera ez diren beste zenbait hizkuntz bizi ere existitzen direlako frantziar gizartean, arabiera adibidez.

Hizkuntzen arteko arazo honek garbi azaltzen du oinarrizko identitatearen arazoa bizirik dagoela hain amankomuneko identitate sendoaren eredu nagusi dela uste dugun frantziar gizartean bertan. Eta eztabaida hori dela eta hainbat frantziarrek konstituzioaren irakurketa berri bat edo, orainartekoarekin parekatuz, ezberdin bat egiten du, konstituzioa frantzeseraz, eta frantzeseraz bakarrik, hezurmamitutako amankomuneko identitate baten adierazpen dela esan beharrean, hizkuntza ezberdinen, identitate partikular ezberdinen elkarbizitza ahalbideratzen duten arauak eta balioak jasotzen dituen zerbait baizik.

Arazo hauek direla eta Alain Tourain bezalako pentsalariak azken urtetako gizarte modernoaren dinamika eta burutu beharreko aldaketak garai bateko klase borrokaren eta ezker-eskuin borrokaren eskematik atera eta marko berri batean jarri beharra aldarrikatzen dute: kultura modernoak sortu dituen erkundetze objektiboak —merkatua, erakunde politikoak, estatua bera— eta pribatutasunera mugatuz baliogabetzatu bide dituen sentimendu eta identitate partikularrak ostzen duten subjektibotasunaren mundua era berri batean elkarrekin lotu beharra, objektibotasunaren abantailak —kontzientzia askatasuna eta legeen aurreko berdintasuna batikbat— galdu gabe, gizarte mailako ekile, agente berrien sortzea ahalbideratzeko, eta horrela askeagoa litzateken historia berri bati hasera eman ahal izateko.

Azken batean etorkinek, inmigranteek beraiekin dakartzaten arazo- en aurrean begiak isteaz damutu beharko dute mendebaleko gizarteek etorkizunean. Etorkinek planteatzen dituzten arazoak ez baitira soilik ekonomikoak. Gizakiek funtsean beti zentzuren bat aurkitu nahi baldin badiote bizitzari, etz zentzu horren aurkitzea gizarte integrazioarekin loturik badago hein haundi batean, etorkinen arazoak maila horretan kokatzen dira: nola identitate partikular ezberdinen elkarbizitza bideratu, amankomuna litzateken espazio publiko bat sortuz, zeinetan identitate partikular baten nagusitasuna gehiegizkoa ez den, datozen eta aberasgarri bihur daitezken beste identitate partikularrentzat toki eginaz, hauetako bakoitzari, datozeinei eta bertakoak direnei, gauza bera eskatuz: ez dezatela espazio publiko hori beraien materialtasunaz osotasunean bete eta agortu nahi izan, hau da, eta Frantzia-ri dagozkion adibide zehatzak jartzeko, islamiar kulturakoei eskatuz estatu laiko bat oinarritzko askatasun baldintza bezala onartu dezatela, bide horretatik beraien identitate partikularren gizarte osoaz jabetzeko pretensioa mugatuz, une berean ordea, Frantzia-ko frantziar eta frantzesera hutsean adierazitako eta laikotasunari nahitaezean berezkoak ez zaizkion ohi-tura, pentsamolde eta tradizioei gauza bera eskatuz: ez dezatela espazio publiko osoa bere osotasunean bahitzeko pretensorik izan, beste hizkuntza, identitate, ohi-tura eta tradizioentzako toki egin dezatela.

Egia bada ere Julia Kristeva idazle frantziarrak dioena, eta nire uste apalean hala da, gizakiaren eta hiritarraren artean orbain bat dagoela alegia, arrotza, eta erantsi daiteke sekulan desagertuko ez den orbaina dela hori, gizarte modernoek eta beraietan garatutako demokraziek berezkoa duten dinamika batetan bakarrik eutsi diezaiokete beraien izaera demokratikoari, pribatutasunera mugatutako identitate partikularrei eta beraien adierazleei geroz eta errespeto publiko gehiago eskeiniz, une berean espazio publikoa geroz eta gehiago babestuz eta garatuz bahitu nahi luteken edonolako interes, identitate partikular eta partaidetza sentimendu guzaien pretensioaren aurrean.

Europa batu beharraren oinarrian dagoen zerbait da guzi hau: Estatu nazionalaren printzipioa gainditu beharra bakean bizi ahal izateko Europa-n, pintzipio horrek identitate partikular eta partaidetza sentimendu bakar batean osoki integratzea baitakar, eta absolutizazio horren bidez borondate hegemonikoa gainontzeko guziei ezartzeko pretensioa, Europa-ko bi gerrate madarikatuen iturri izan dena.

Adibide hauek nahikoa bitez gure gizarteko pluraltasun auzia ez dela beste gizarte modernoetan ematen denarekiko hain ezberdina azpimarratzeko. Funtsean gaur eguneko gizarte modernoek bideratu be-

harreko arazoa guzientzat antzekoa da. Ez gaude mundutik aparte, euskal gizartea ez da hainbatetan nahi gendukela dirudien bezainbat berezi eta aparteko, gure inguruan gertatzen denaren zehazte bat baizik.

Honenbestez berriro berezitasunaren eta komunikazioaren arteko harremanera itzuli beharrean nago pluraltasunak askatasunarekin duen lotura hertsia azaldu ahal izateko. Aurreko parrafoetan adierazitako espazio publikoan interes eta identitate partikularren arteko harremana, negoziazioa, elkarrizketa ematen dela esan dut. Harreman eta elkarrizketa hori gertatu daiteke interes eta identitate partikular bakoitza gisa irekian eraikirik bada, bere izaera itxia ez bada, bere baitan itxirik absolutizatzen ez bada, interes, identitate eta sentimendu hoiak izaera matafisikoz jazten ez badira.

Gure ez hain urrutiko tradizioan eman da gaur egun komunitarismoaren inguruan aurki daiteken identitate partikularren absolutizaziorako joera. Charles Taylor canadiar filosofoak identitatea garatu ahal izateko honek duen kultural balio sustantiboaren beharra azpimarratzen duenean, lortutako identitatea beti kultur balio sustantibo hoiaren baldintzapean gelditzen delarik, eta harreman horretatik kultur balio sustantibo hoiaren babeserako erakartzen duen ezinbesteko eskubidea lantzen duenean, aipaturiko absolutizazioaren arriskua nahiko garbi azaltzen da, nahiz eta Taylor-ek berak beste zenbait lanetan identitate partikularrak funtsean eta azken oinarrian beti komunikaziorako irekirik daudela dion. Gurean berriz, eta azken hogeitahamar urtetako hizkuntz politikan izugarritzko eragina izan duelarik, Rikardo Arregi, euskarak inperialista izan beste erremediorik ez zuela argudiatzen saiatzen zenean 1968-an, aipaturiko absolutizazioaz baliatzen zen: gizakiek bere konkretotasunean bakarrik garatu dezakete beraien izaera, eta konkretotasun hori tradizio bati, geografia bati, eta batez ere hizkuntza jakin bati loturik dago ezinbestean, inolako askatasunik gabe konkretotasun horren aurrean. Rikardo Arregi-k garatu zuen argudio moduan gizakiarentzat ez da tradizioaren beharra, hizkuntzatasuna bera arau, baizik eta tradizio bakoitza, hizkuntza bakoitza bere bakartasunean da arauzko, ezinbesteko bihurtzen dena. Argudio bera garatu zuen geroxeago Txillardegik bere «Hizkuntza eta pentsaera» lanean.

Argudio mota guzi hauetan, Taylor-enean, Rikardo Arregi-renean eta Txillardegirenean identitate partikularrari kanporako komunikaziorako gaitasuna ukatzen zaio. Partikulartasuna bere baitan itxirik, hertsirik gelditzen da. Argudio honi jarraiki espazio publikoa identitate bakar baten baitan bakarrik eraiki daiteke eta ez identitate partikularren arteko elkarrizketan, komunikazioan eta negoziazioan. Argudio honen ara-

bera espazio publikoa kultur jakin baten, identitate partikular baten sustantiz osaturik gelditzen da osoan, eta espazio publiko horretan bizi direnek sustantzi hori bere egin, arauzko bailitzan onartu beste erremediorik ez dute, ez dira aske beraien kontzientzian eta beraien identitate osakeran. Arrazoi honexegatik Sokrates-ek edan izan behar izan zuen zikuta: Atenas-eko eraketa politikoa demokratikoa zen herri-tik zetorrelako agintearen legitimazioa, edo orduko ateniarrak gizonetako eta jabedunek herri bezala definitzen zutenetik. Baina demokrazia hark ez zuen kontzientzia askatasunik ezagutzen: agoran erabakitikoa ez zen bakarrik elkar bizitza arautzen zuena, norbanakoarentzat egia, nahitaezko, onartu beharreko egia baizik.

Azken mendeetan Europa-n garatzen joan den demokraziak, aitzitik, bi ezaugarri ditu, eta biak ditu beharrezko: herrian, eta gizaki guzietan osaturiko herrian, izatea aginteak bere iturburua, eta gainera kontzientzia askatasuna bermatzea. Hau da: agoran, espazio publikoan erabakitzen dena da balio duena elkar bizitza arautzeko, baina ez da sinestu, onartu beharreko egia. Demokraziaren eremu publikoak ez du egiaz erabakitzen, ez du arauzko identitate erabakitzen, identitate partikularrak elkarrekin bizitzeko beharrezkoak diren arauak erabakitzen ditu aldiz.

Diferentzien arteko komunikaziorik gabe ez dago, beraz, pluraltasunik. Guziz garrantzizkoa iruditzen zaidan ohar bat egin behar dut, ordea, puntu honetan. Pluraltasuna eta komunikazioa aipatzen direnean gure gizarteko diskurtso politikoetan beti dute beraiekin halako kutsu moralista bat, borondatezko kutsu bat, arazo politiko gordina izan beharrean zerikusia norbanakoaren ontasunarekin, on izatearekin bakarrik balu bezala.

Guziz alderantziz da, ordea, ene iritzian. Identitate partikularren arteko komunikazioa, diferentzien arteko komunikazioa da pluraltasunaren ezinbesteko ezaugarri gisa erakundetze demokratikoaren muina. Hau da: diferentzien arteko komunikazioa diodanean erakunde publiko bati buruz ari naiz, ez naiz norbanakoaren on izatearekin zerikusia lukeen zebaitetaz ari. Eremu publikoa politikaren eremu gisa ez da abstrakzio bat, ez da penstamendu huts bat, ez: norbanakoaren askatasunaren eta oinarritzko eskubideen lekua eta bermea da. Pluraltasuna erakunde politiko bihurtzen ez bada, ez da ezer. Eremu publikoa pluraltasunaren zentzuan, pluraltasunaren eskutik eta pluraltasuna erakundetuz, gauzatuz, eraikitzen ez bada, ez da ezer. Edo zuzenago esateko: ez da demokratikoa izango. Erakundetze demokratikoa identitate partikularrak elkarrekin komunikazioan, negoziazioan, elkarriketan jartzea da, interes partikularren negoziazio esparrua den hein berdinean.

Esandakoaren ezinbesteko ondorio da ez dagoela identitate absolutorik, ez dagoela demokraziarik identitateen mugaketarik gabe, ez dagoela diferentzien arteko komunikaziorik pluraltasunik gabe. Esandakoaren ondorio da era demokratikoan eraikitako eremu publikoak, modu demoratikoa erakundetutako pluraltasunak ez duela arauzko identitate bakar bat ezagutzen, ezin duela arauzko identitate bakar bat onartu. Beste modu batetara esanda: erakundetze demokratikoaren muina pluraltasuna ez bada ez dago kontzientzia askatasunik, eta kontzientzia askatasuna den magalean sortzen dira gainontzeko askatasunak; kontzientzia askatasunaren errailetatik jaiotzen dira gainontzeko askatasun guziak.

Pluraltasuna ez da jarrera tolerante bat bultzatzea. Pluraltasuna ez da beste zerbaitekin parekatuz hobea litzateken bertute bat. Pluraltasuna ez da, iturrian, norbanakoaren borondatetik sortzen den zerbait. Pluraltasuna, zentzurik estuenean eta gogorrean, askatasunaren baldintza da. Askatasunerako ezinbestekoa da erakunde gisan gauzatatutako pluraltasuna.

Antzeko zerbait esaten du hogeigarren mendeko totalitarismoak aztertzerakoan Tzvetan Todorov-ek bere azken liburueta batean: «Memoria del mal, tentación del bien. Indagaciones en el siglo xx». Demokraziaren eta pluraltasunaren funtsa deskribatu nahirik «ni-a» eta «zu-a», «zu-a» «ni-a»ren baliokide egirik, eta «ni-a»ren eta «zu-a»ren elkarriketan proiektatzen den «haiek» bat azpimarratzen ditu, une berean demokraziaren eta pluraltasunaren etsai bezala «ni-ak» eta «zu-ak» elkarrekin «gu» bat sortzea jartzen duelarik. Ez Todorov-ek «gu» deitu daiteken zerbait ez dagoela uste duelako, «gu» deiturikoek «zu-ak» eta «haiek» izan daitezkenak ezabatzeko joera, barne logika, dutelako baidarik, eta totalitarismo guziek «gu-a»ren definizioetatik sortu direlako.

«Gu-a» definitzera iristen denean identitate bat arauzko bihurtzen da «gu» horretan arrapaturik daudenentzat, eta «gu» horren barruan ez daudenak «haiek» izan beharrean «besteak» bihurtzen dira. Kultura modernoari egiten zaizkion kritika gehienetan indibidualismoa, norbanakokeria oinarritzko elemento izan ohi da. Kultura modernoaren ezauzgarri nagusia indibidualismoa dela esan ohi da, eta gaitzetsi une berean, indibidualismo hori gaitz guzien, edo gehienen, iturria bailitzan.

Esan beharrik ez legoke, bainan indibidualismo hori batetik ezinezkoa da, eta bestetik benetan arrisku bihurtzen da, eta bihurtu izan da, kolektiboa izan denean: kultura modernoan indibidualismo arriskutsurik egon bada «gu» moduan definitutako norbanako kolektiboak izan

dira, «gu-ak». Eta arestian esan dudan bezala, indibidualismoa, norbanako huts bezala, ezinezkoa da, demokrazia identitate partikularren elkarren arteko komunikazio erakundetua den bezala, norbanakoaren identitatea komunikazioan bakarrik sortzen delako, komunikazioan bakarrik sor daitekelako. Ez dago norbanakorik bere baitatik bere baitarako sor daitekenik. Bere baitatik bere baitan den norbanakorik ez dago. Ezinezkoa da. Gizakia harremanean bakarrik izan daiteke.

Pluraltasuna ardatz izanik erakundetzen den eremu publikoaren, demokraziaren eta norbanakoaren identitatearen artean parekotasun be tea dago: bietan komunikazioa, harremana da oinarrizko egitura. Esan beharrik ez legoke, berriro, bainan hasieran esan dudan bezala, hitz guziaz tresna huts bihurtu ditugun hontan esan beharra dago: erakunde sendorik gabe, erakunde legitimaturik gabe ez dago identitaterik. Norbanakoek beraien identitatea eraiki dezakete, harremanean eta komunikazioan, ez autoerreferentzian eta autoisladan, erakunde demokratikoak sendoturik, bermaturik, legitimaturik dauden heinean. Aitzitik: erakunde publikoak, eremu publikoa, elkarrizketa publikoa etengabe zalantzan jarririk badaude, etengabe parentesi artean bezala jarririk badaude, etengabe bere izatean bermatu beharrean izan daiteken, eman daiteken, hobeagoa litzateken erakundetze birtual batekin gonbaratuz barnehusutzen badira, norbanakoek ezin izango dute, inola ere, identitaterik osatu. Kasu horretan ez dago identitate gehiago, kasu horretan ez dago askatasun gehiago, kasu horretan ez dago demokrazia gehiago. Kasu horretan hirurak: identitatea, askatasuna eta demokrazia ezin durik gelditzen dira. Eta gutxiago izate horretatik sortzen da «gu» sendo eta borobil batean babesa aurkitu nahia eta beharra.

Amaierako gogoetei ekin aurretik, ohar bat tartekatu nahi nuke. Hasieran aipaturiko hitzen hustuketak, tresnakeria dela eta, eta oinarrizko garrantzia izan beharko luketen hainbat hitz berriro eraiki beharrak, badu hasieran bertan eman diodana baino garrantzizkoagoa den esanahirik. Errealitatea, gizartezko errealitatea deskribatzeko eta artikulatzeko esku ra ditugun hitzak barnehusurik gelditzen badira, gizartezko errealitatea bera da barnehusurik gelditzen dena, identitatea bera da barnehusurik gelditzen dena, askatasuna bera da barnehusurik gelditzen dena. Parekotasuna ez da antzekotasun bat bakarrik. Tresnakeriaz barnehusuriko hikuntzak errealitatea bera geroz eta birtualagoa bihurtzea dakar berarekin. Eta hasieran hitzen hustuketa euskal gizarteak duen gaixotasun gisa definitu badut, benetako gaixotasuna gizartezko errealitatea fikzio bihurturik egotea da, zeinetan, azkenean, sufrimendua bakarrik den erreala, sufrimenduarekin hertsiki loturiko askatasuna mehatxaturik egotea, iden-

titate, partaidetasun sentimendu bakar bat guzientzat bortxaz arauzko egin nahi izatetik datorrena. Eta hori, bortxa eta bortxak sortarazitako sufrimendua, biktimak, guzi hori bakarrik baldin bada erreala, fikzio bihurturik daukagun gainontzeko errealitatea benetako errealitate modura biktimen errealitate horretatik abiatuz bakarrik berreraiki ahal izango dugu, askatasuna bezala, eta hiritar identitatea bezala.

Ez dago, beraz, askatasunik pluraltasuna, hau da sentimendu eta identitate partikularren espazio publikorako mugatu izana, erakundetzen ez bada, erakundetze hori bermatzen eta legitimatzen ez bada. Erakundetze horretan jasotzen dena, hezurramitzen dena, isladatzen dena ez da, ezin izan daiteke partaidetza sentimendu bat, talde identitate bat, «gu» bat, diferentzien arteko komunikazioa baizik.

Erakundetze horrek, ordea, ez du beharrezko sendotasunik une berean hiritar eredu batean gorpuzten ez bada, hiritar identitate jakin bat bideratzen ez badu, erakundetze demokratikoa bera pluraltasunean eraikia den bezala, komunikazioa bere eraiketaren ardatz bihurturik ez duen hiritar identitate bat. Askatasunaren baldintza den pluraltasuna ez da bakarrik gizarte mailan behar izan bat, ez da, ezta ere, erakunde publiko-politikoetara mugaturik gelditzen den eskakizun bat. Norbana-koaren identitatean ere izan behar du bere islada. Gizarte demokratiko batetako hiritarraren identitateak, bere baitan plurala ez bada ere, guxtienean komunikaziorako, diferentziarako irekia izan behar du, bere identitatearen partikularitasuna, mugatua izatea, besteekin komunikazioan bakarrik, besteenaekin harremanean bakarrik bere berezko izaera eraiki ahal dezakeena bezala barneratzen ez badu. Arrazoi zuen Metz teologoak pluraltasunaren azken baldintza norberaren identitatearen baitan kokatzen zuenean, eransten badiogu horretarako baldintza, beste alde batetik begiraturik, erakunde publiko-politikoek pluraltasunaren izaera bera azkeneraino pentsatzea dela.

Jakin badakigu identitateak berezko joera duela, bere izaerarekiko zalantzak baztertu ahal izateko, batasunean eta bakartasunean adierazten den zihurtasun estrukturak eraikitzeko, estruktura hoiengatik helburua gu bete batean bildutako eta osoki integratutako identitate kolektibo bat osatzea delarik. Bere burua demokratikoki erakundetzen duen gizarte batetako hiritarrak bere identitatearen zihurtasuna, aldiz, ez du sentimendu partikular baten identitate kolektibo batean osoki integratzean, absoluto bihurtzean bilatzen, identitate ezberdin mugatuen eta partikular eginen elkarren arteko komunikazioa bideratzen eta bermatzen duten erakunde eta arauetan baizik. Diferentzien arteko komunikazioan gauzatutako askatasuna bermatzen duten arauak eta erakundeak

dira identifikazioaren muina osatzen dutenak, eta hoiekiko maitasuna da, Maurizio Viroli pentsalariaren iritzian errepublikar zentzuan ulerturiko aberriarekiko atxekimendua osatu beharko lukeena, eta ez besterik.

Ez dakit esandako guzia oraindik zehatzago gure gizartean bizi dugun egoerara konkretatzea beharrezkoa den. Horrela egin beharko banu, oso hitz gutxitan egin ahal izango nuke ondoko hau esanik: euskal gizartea, sujeta politiko gisa, bere baitango partaidetza sentimendu difereenteen arteko komunikazioan eta hitunean bakarrik eraiki daiteke, eta eraikitze horrek erakunde publiko-politikoetan gauzaturik egon behar du hasieratik beretik eta bere muinari dagokionez. Euskal gizartean eredu beharko luken hiritar identitatea, berriz, pluraltasuna muin duen erakundetze publiko-politiko horren islada sortutakoa izango litzateke. Sujeto politiko izatea diferentzien arteko komunikazioan eta hauen arteko itunean eraikitzea ez da, inola ere, partaidetza sentimendu baten gehiengoan eraikitzearen berdina, nahiz eta gehiengo horren borondatea izan, gero, bigarren pauso batean, diferentziari nolarebait amore ematea, erakuntzan ukatutako harremanetarako bideren bat irekirik utzirik, diferente izaten jarraitzeko, tolerantziak horrela eskatzen duelako edo, baimena eta aukera eskeiniz. Inoiz honela ulertutako pluraltasunari pluraltasun paternalista deitu izan diot. Gaurkoan pluraltasuna zerbait gogorragoa, gordinagoa eta garrantzikoagoa dela erakusten ahalegindu naiz.

Aunitzasuna askatasunaren baldintza gisa ulertzeak ez luke inolako zailtasunik sortu behar, goraxeago aipatu dudan zihurtasun beharrazatik ez balitz. Isaiiah Berlin pentsalariak argi asko azaldu zuen bezala, eguneroko bizitzan gauzatzen dugun aukerak egiteko gaitasunak eraman beharko gintuzke askatasuna pluraltasunean oinarretzen dela pentsatzera, eta historiaren determinismoa ukatzera. Historiak determinaturik bagaude, ez dago askatasunik, aunitzak liriteken aukeren artean hautazkerik ez genukelako. Askatasunak pluraltasuna eskatzen du ezinbesteko baldintza bezala, eta biak historiaren determinismoa ukatzen. Historiaren determinismoa bezala gizartezkoa, hau da, identitate kolektiboan sustantzi ezinbesteko bihurtutako identitate guziz arautua ukatzen du askatasunak. Eta jakina da planteamendu honek ez zuela Isaiiah Berlin komunitatearen beharra guziz ezbaliozkotzat jotzera eraman. Alderantziz baik: behin eta berriz altxatzen den indar bezala ikusten zuen bai komunitarismoa, bai abertzaletasuna. Ez zuen horregatik, ordea, bere oinarritzko askatasunaren eta pluraltasunaren aldeko apustua ukatu beharrik izan, komunitarismoa eta abertzaletasuna oinarritzko apustu horren giroinguruan interpretatu behar zirela azpimarratu zuen behin eta berriz.

Hermann Lübbe alemaniar pentsalariak bere lanetako batean galdetzen dio bere buruari, ea zergatik ezagutu nahi izaten ditugun gurea ez diren beste historiak, beste gizarte eta pertsonen historiak. Eta erantzuna garbia da, bere iritzian: gurearekiko neurri batean askeak garelako, gurea ez delako bete batean arauzkoa, norbanakoaren identitatea gertakizunen mailakoa delako, eta ez arauen mailakoa. Identitatea arau huts baten ondorio den heinean askatasuna ukaturik gelditzen da. Guziz arautua ez bada, beste aukeren jabe da. Beste aukera hoiak beste historietan azaltzen dira benetako aukera gisa. Horregatik gure hoiakiko interesa.

Horregatik aldatzen da historia, horregatik sor daiteke ezer berririk historian. Kolakowski poloniar filosofariak esango lukenez, aurreko tradizioarekiko gure lotura ezinbestekoa eta betea balitz, oraindik leize zulotan biziko ginateke. Aurreko tradizioarekiko errebolta inoiz betea, osoa, izatera iritxiko balitz, historiaren inolako baldintzarik gabeko hasiera bat pentsatzeko eta gauzatzeko gai izango bagina —sujeto guziz autonomo eta absoluto gisa—, berriro leizezulotan biziko ginateke.

Gizartezko identitateak, historia eta tradizioak beharrezkoa dira identitatea eraiki ahal izateko. Bainan historia eta tradizio hoiak bakarrik eta batasunezkoak bihurtzen diren heinean, arau huts bihurtzen zaizkigunean, presondegi bihurtzen dira, askatasuna ukaturik gelditzen da, historian ezer berririk ez daiteke sortu eta azkenean historia bera ukaturik gelditzen da, gizakia bera, bere izaera emandakotik abiatuz etengabe bere burua asmatu beharrean oinarritzen baita. Baina horretarako aukeren aunitztasuna beharrezkoa da.

Guzi honegatik dio Odo Marquard filosofariak ez dagoela historia unibertsalik, historia partikular aunitzak baizik, eta historia unibertsalaz hitzegin behar bada, hain zuzen historia partikular guzi hoi elkarreki-komunikazioan eraikitzen doan bezala bakarrik egin daitekela.

Berriro diot, eta honekin amaituko dut, aipatu ditudan gogoeta guzi hauek ez direla filosofoen abstrakzioak, eguneroko politikarekin eta politikaren arazo larriekin, bakea eraiki beharrekarekin, biolentziarekin eta bortxarekin amaitu beharrekarekin erantzukizunarekin zerikusirik ez duten eta mundutik aparte bizi diren pentsalarien ateraldiak. Ez. Demokrasiaren eta askatasunaren baldintzekin zuzen zuzeneko zerikusia dute, eta gure damurako bakarrik utz ditzakegu bazterrean.

Milesker zuen arretagatik.